



Hernaniko Udala

OROKORRA / GENERAL

Dokumentuen aurkezpen agiria

Erregistroaren datuak

Erregistro Zkia: 2020-00000001954

Erregistro mota: Sarrera

Aurkezpen data: 2020/05/19 13:09

Gaia: Mozioa aurkeztea. (GFA udalei egiten dien diru-banaketa) Kopia: Idazkaritza

Interesduna: 44156947Y LERTXUNDI ASTEASUINZARRA XABIER

null:

Jasotzailea: ALKATETZA

Erantsitako dokumentuak

Izena	Egiaztapen kode segurua (EKS)	Aurkeztuta
mozioa	SIERaa1ab0a1-f617-4559-b124-2f0e74b9db37	Bai

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, agirien aurkezpena egiaztatzeari dagokionean luzatzen da jasotze-agiri hau.



Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **SIER1bd359da-41a7-4fe5-b297-e8e7ba1fa639**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

MOZIOA

Maiatzaren 14an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Aldundiak udalei egiten dien diru-banaketan % 20ko murrizketa aplikatzeko Diputatu Kontseiluaren aldebakarreko erabakia. Horrelako erabakiei buruz hitz egiteko toki beharko zukeen Gipuzkoako Finantzen Kontseilua hurrengo egunean bildu zen eta dagoneko hartuta zegoen erabakiaren berri emateko izan zen.

Udalak, herritarren beharretatik gertuen dauden erakundeak izateaz gain, lehen mailako erakundeak dira, Udal Legeak aitortzen duen bezala. Zentzu honetan, euskal erakundeen arteko diru-banaketan aldaketarik egon behar bada, erakunde guztien artean eztabaidatua eta adostua izan behar luke, aldeek informazioa modu gardenean partekatu ondoren eta inola ere ez aldebakarrez.

Zerbitzu publikoak garatzeko ezinbestekoa den finantzazioaz ari gara hizketan, udalen eguneroko kudeaketan eta herritarren bizitzan eragin zuzena duten erabaki politikoez. Horregatik, honako eskariak egiten dizkio Hernaniko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari:

1. UFFFri buruzko elkarriketaren aldeko apustu irmoa egitea.
2. Berraztertu dezala aldebakarrez hartutako erabakia eta udalekin elkarlanean adostasun bat bilatu dezala udalen egonkortasun finantzarioa ere helburu izango duena.
3. Elkarlana inoiz baino beharrezkoagoa dela sinetsita gaudenez Udalekin kobernamentzarako foro bihur dezala Gipuzkoako Finantzen Kontseilua. Bertan informazioa partekatu dadila, proposamenak aztertu eta adostasunak lortu daitezen, ondoren Gipuzkoako udalen finantzaketari buruzko Foru Arauan beharrezko isla izan dezaten.

Hernaniko Udalak erabaki honen berri emango dio Gipuzkoako Aldundiko Diputatu Nagusiari, Ogasun Diputatuari, Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi guztiei eta EUDELeko Gipuzkoako eta EAEko zuzendaritzei.



Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

2020-05-19

